



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENSA-DEIALDIA

KULTURA ETA EUSKERA BATZORDEA. EGUENA, ZEZEILAREN 21a
(11:00etan)

Talde batzarkideek euskereak Aldundian euki beharreko normalkuntzari eta erabilereari, Burzaco auzoaren konserbazinoari eta Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren sorrerari buruz eztabaidatuko dabe

Bilbon, 2013ko zezeilaren 20an.

Kultura eta Euskera Batzordea bihar alkartuko da Bilbon, oposizioak aurkeztutako Arauz Besteko zazpi Proposamen eztabaidatzeko. Bildu Taldeak hiru ekimen aurkeztu dauz, Bizkaiko ganberak euskerearen normalkuntza-prozesuaren inguruan eta Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren sorreraren inguruan daukan jarrera ezagutzeko. Bizkaiko Talde Popularrak beste bi aurkeztu dauz, ondasun kulturalako ondareak Bizkaiko museoei dohaintzan emon, laga eta gordailuan itxi izana eskertzeko mekanismoa sortzeko, eta Burzaco auzo meatzaria konserbetako Zugaztietan (Trapagaran). Bestetik, Euskal Sozialistak Taldeak euskerearen erabilera sustatzeari buruzko proposamena aurkeztu dau.

Arauz Besteko bi Proposamenen bitartez, Bilduk Aldundiari eskatu gura deutso “zerbitzu guztiak euskeraz eskaintzeko herritarrei” eta “sensibilizazio-jarduerak ipinteko martxan, laneko esparru informalean euskerearen erabilera handitu ahal izateko”. Koalizino abertzaleak Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren sorrera be sustatu gura dau, “arte mueta horrek gure herriko kulturaren daukan garrantziagaitik”.

Bilduren ildo berean, Euskal Sozialistak Taldeak proposamen ez loteslea erregistratu eban abenduan, euskerearen erabilera sustatzeko Aldundian. Talde horrek Aldundiari eskatu gura deutso, “hartu-emon informaletan, sensibilizaziorako” barne-jarduerak ipinteko martxan, eta, apurka-apurka, zerbitzu “guztiak” euskeraz eskaintzeko, “gure errealidade soziolinguistikoaren eta finkatutako helburuen arabera”. PPK zuzenketa-eske gehigarria aurkeztu dau, bizkaiera sustatu, konserbau eta erabilteko.

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak gura dau gainerako taldeek euren ekimen bat babestu dagien, Foru Aldundiari eskatzeko eskerrak emoteko “antzeko erizpidea” daukan prozeduraren bat sustatzeko foru museoetan eta beste museo batzuetan (beti be, Aldundiak museo horreen patronatuetan edo kontseiluetan parte hartzen badau), ondare kulturalak dohaintzan emon, gordailuan itxi edo lagapenak egiten dabezenentzat, eta, modu horretan, esker on hori agertu daiten “erakusketen gaineko azalpen, identifikazio eta katalogoetan”. EAJ ekimen hau babesteko prest dago, baina jasota geratu behar da esker-on horreek bakarrik agertu behar dirala ongileek “horretarako borondatea agertzen” badabe.

Bizkaiko Batzar Nagusiek PPre proposamen bat be aztertuko dabe, Zugaztietako (Trapagaran) Burzaco auzo meatzariaren egoera “aztertzeko”, “ekintza posibleak analizetako eta erabilera egokia emoteko”; izan be, “desagertzen hasi da”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CONVOCATORIA DE PRENSA

COMISION DE CULTURA Y EUSKERA. JUEVES, 21 DE FEBRERO (11.00 HORAS)

Los grupos junteros debatirán sobre normalización y uso del euskera en la Diputación, la conservación del barrio de Burzaco y la creación de la Escuela Superior de Artes Escénicas

Bilbao, a 20 de febrero de 2013.

La Comisión de Cultura y Euskera se reúne mañana en Bilbao para debatir siete Proposiciones No de Norma presentadas por la oposición. El Grupo Bildu presenta tres iniciativas para conocer la postura de la cámara vicaína en torno al proceso de normalización del euskera y la creación de la Escuela Superior de Artes Escénicas. El Grupo Popular Vizcaíno es el responsable de otras dos para establecer un mecanismo de agradecimiento en los museos vizcaínos a los actos de donación, cesión y depósitos de bienes del patrimonio cultural y para conservar el barrio minero de Burzaco en La Arboleda (Trapagaran). Por su parte, el Grupo Socialistas Vascos presenta una propuesta en torno a la promoción del uso del euskera en la Diputación foral.

A través de dos Proposiciones No de Norma, Bildu pretende instar a la Diputación Foral de Bizkaia a que esta institución “facilite a la ciudadanía todos los servicios en euskera” y a que “ponga en marcha actividades de sensibilización para incrementar el uso del euskera en el ámbito informal del trabajo”. La coalición abertzale pretende también impulsar la creación de la Escuela Superior de Artes Escénicas “dada la importancia que este arte tiene en la cultura de nuestro pueblo”.

En la misma línea que Bildu, el Grupo Socialistas Vascos registró en diciembre una proposición no vinculante para promocionar el uso del euskera en la Diputación. Esta formación quiere instar a que la institución foral ponga en marcha actuaciones internas de “sensibilización en las relaciones informales” y facilite de forma progresiva “todos” los servicios en euskera “en función de nuestra realidad sociolingüística y de los objetivos marcados”. El PP ha presentado una enmienda de adición que recoja el impulso, conservación y uso del euskera vizcaíno.

Por su parte, el Grupo Popular Vizcaíno pretende que el resto de grupos apoyen una iniciativa suya para instar a la Diputación Foral a que promueva, en los museos forales y en otros en los que participa en su patronato o consejo, la implantación de un agradecimiento “similar” a los donantes, depositantes o cedentes de bienes culturales, para que se haga constar tal hecho “en las explicaciones, identificaciones y catálogos de las exposiciones “. El PNV está dispuesto a apoyar esta iniciativa siempre que se haga constar que estos agradecimientos deben mostrarse cuando los benefactores “manifiesten su voluntad”.

Las Juntas Generales de Bizkaia debatirán también una propuesta del PP para “estudiar” la situación del barrio minero de Burzaco en la Arboleda (Trapagaran), “analizar posibles



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

actuaciones y darle un destino útil”, ya que está “empezando a desaparecer”, según los populares.